

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2013ko urtarrilaren 4a. IX. urtea. 2.459. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Orendainen Urtezahar egunean egin zuten elkarretaratzea, eta argazkia atera zuten. HITZA

Bilbora autobusez joateko deia egin dute

Hilaren 12ko manifestaziora joateko ohiko lekuetan jarri ditu izena emateko zerrendak euskal preso eta iheslarien aldeko Herrira ekimenak 5

Errege egunez jokatuko dituzte XXXI. Shanti txapelketako finalak

Ia 60 taldek eman dute izena aurtengo txapelketan, eta guztira 555 gaztetxo ari dira jokatzeko; gaur hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte, Usabal kiroldegian 2



Atzo finalerdietako partida guztiak jokatu zituzten, Usabalen. IURKIZU

Zerealak eta ogia ardatz dituen museoa ireki dute

Route 33 Alegiako Bazurka industrigunean ireki dute; kalitatezko produktuak izateaz gain, ogiaren historia erakusten dute 4

Otaegik eta Otañok finalerdietara pasatzeko aukerak dituzte

Eskualdekoek Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketako lehen puntua Asteasun lortu zuten 3

VII. Poltsiko Antzerki Lehiaketan izena eman daiteke

Adunako Asvineneak antolatzen du, eta aurten 'Express' berrikuntza izango du; izena martxoaren 18a baino lehen eman behar da 6



HITZAren harpidedunen artean PORTUGALEN egiteko bi pertsonentzako zirkuitua zozkatu dugu

Irabazlea:
Joseba Aranburu Barbarias (Bermeo)

Tolosa

↓ **Kirol aktibitatea**

URTARRILAK 5, BIHAR

15:30. Emakumeen Euskadiko Futbol Ligako partida, Usabal kiroldegian: Tolosa CF-Alaves.

16:30. Gizonezkoen futbola, Ohorezko Erregional mailako partida, Berazubi estadioan: Tolosa CF-Real Union.

17:30. Mutilen futbola, juniorren ohorezko mailako partida, Usabal kiroldegian: Tolosa CF-Mondragon.

URTARRILAK 6, IGANDEA

09:30-13:30. Gabonetako Shanti Torneoko finalak, Usabal kiroldegian.

URTARRILAK 7, ASTELEHENA

17:00. Esku pilota profesionala, lehen mailako binakako txapelketako final laurdenak, Beotibar frontoian: Gonzalez-Zubieta vs. Arretxe-Begino.



Maila guztietako finalerdietako partidak izan ziren atzo Usabal kiroldegian. Irudian, alebin mutilen norgehiagoka bat. I. URKIZU

→ **Laburrak**

Erretzeari uzteko taldeko izen ematea zabalik

OSASUNA Tolosako Minbizia-
ren aurkako elkarteak, erretze-
ari uzten laguntzeko taldea anto-
latu nahi du. Datorren
urtarrilaren 18tik aurrera hasiko
dira biltzen, elkarteak Tolosako
Emeterio Arrese plazan duen
lokalean. Lehen saioa banaka-
koa izango da, eta ondoren tal-
dekako 8 saio egingo dituzte.
Gainera, terapia doakoa izango
da, eta goizez nahiz arratsaldez
egingo dituzte, izena eman
behar dutenen arabera. Plaza
kopurua mugatu egingo dute,
eta izena eman nahi dutenek,
943 45 77 22 telefono zenbakira
deitu beharko dute.

**Karroza eta konpartsen
lehiaketako izen ematea**

GIZARTEA Gaur zabaldu dute,
inauterietako karroza eta kon-
partsen lehiaketan parte har-
tzeko izen emate epea.
<http://www.tolosakoudala.net>
webgunean edo kultur etxean
bete beharko dira datuak.

Errege egunez jokatu-
ko dituzte maila
bakoitzeko finalak, eta
sari banaketarekin
amaituko da txapelketa

Itzea Urkizu

Hiru hamarkada baino gehiago
egin behar da atzera, gabonetako
lehen Shanti txapelketa jokatu
zen urtera itzultzeko; gaur egun,
ordea, oraindik ere, Tolosako eta
inguruko neska-mutilen hitzor-
du garrantzitsuetako bat da, fut-
boleko jokatzeko. Horren erakus-
le da, aurtengo txapelketan izena
eman duten 555 gaztetzoeen ze-
rrenda.

Pasa den azaro amaieran ireki
zuten, antolatzaileek, izen ema-
tea, eta 2001etik 2003ra bitarte
jaiotako gaztetzoez izan dute par-
te hartzeko aukera. Horrela, 59
talde osatu dituzte, guztira, parte-

hartzaileek: benjamin nesken 3
talde, 2003ko benjamin mutilen 16
talde, 2004ko benjamin mutilen 10
talde, alebin nesken 11 talde, eta
alebin mutilen 19 talde.

Finalerdia martxan

Azken bi asteotan, gabonetako
oporraldian jokatu dituzte parti-
dak, urtero bezala. Usabal kirol-
degiko kantzaxa izan da txapelketa-
ren gerizpe, eta fasez fase parti-
dak irabazten joan diren taldeek,
finalerdia jokatu dituzte jada.

Hain zuzen ere, atzo izan ziren,
egun osoz, maila guztietako fina-
lerdietetako norgehiagokak. Ale-
bin nesken mailan, Izarrak-Kon-
gitoak eta Tigre txikia-Zurrubi-
loak partidak jokatu zituzten.
Maila berean, baina mutilen tal-
deetan, Egarriko tigreak-Simp-
sons izan zen lehen lehia, eta Gol
taldea-Tximistak bestea.

Benjamin mutilen kasuan, be-
rriz, 2003an eta 2004an jaiotako
artearen bi azpi-talde egin dituzte
antolakuntzako arduradunek.
Hau dela eta, 2003ko benjaminen
bi partida izan ziren atzo, Usabal-
go kantzaxan: Zuloaga Txiki-Txis-

pa izan zen lehena, eta Babarru-
nak-Tximista Hirukide bigarre-
na. Azkenik, 2004ko benjamin
mutilen finalerdia honakoak
izan ziren: Marrazoak-Tximista
Samaniego, eta Iurre taberna-Uz-
turre taberna.

Azken partidak, etzi

Gaztetzoeen arteko futbolera
hurbiltzeko txapelketa etzi ama-
ituko da, Errege egunean. Bihar,
ordea, hirugarren eta laugarren
postuak erabakiko dituzten nor-
gehiagokak jokatu dituzte nes-
ka-mutilek.

10:00etan, alebin neskek ari-
ko dira, eta alebin mutilak, berriz,
10:45ean. 2004ko benjamin muti-
len hirugarren eta laugarren sail-
katuak 11:30eko lehiak erabakiko

ditu, eta azkenik, 2003ko benja-
min mutilen partida 12:15ean
izango da.

Igandean, azkenik, finalen
txanda izango da, eta sari bana-
ketarekin borobilduko dute XXXI.
Shanti txapelketa. Azken partida
hauek ere, Usabalgo goiko kan-
txan izango dira, 09:30etik aurre-
ra.

Lehen partida hau, bada, ben-
jamin neskena izango da, eta
2004ko benjamin mutilen lehiak
jarraituko die, 10:15ean hasita.
2003ko mutil benjaminen finala,
berri, 11:00etan hasiko da. Azke-
nik, alebinen txanda izango da;
11:45ean neskek jokatu dute,
eta 12:30ean mutilek. Partida
hauen guztien ondoren, 13:30ean,
sari banaketari ekingo diote.



Ia 60 taldek eman dute izena, etzi amaituko den txapelketan. I. URKIZU



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ **Iragarki laburrak**

GALDUTAKOAK

Betaurrekoak. Gertura ikusteko
betaurrekoak galdu ditugu, To-
losako Guadalupeko zubitik ga-
nadu hiltokira bitartean. Betaur-
rekoak aurkitu dituenak, dei
dezala, mesedez, 943 65 36 86
telefono zenbakira.

Unai Otaño eta Joseba Otaegi finalerdietarako txartela lortzeko bidean

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketako lehen puntua Asteasun irabazi zuten Otañok eta Otaegik

Asier Imaz

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa astelehenean hasi zen, Asteasun. Iazko txapeldunek, Joseba Otaegik eta Unai Otañok, bertan lortu zuten lehen garaipena, Joxemari Olasagasti eta Donato Larretxearen aurka. Lehia polita eta ikusgarria izan zen, eta gazteek, azken txanpan lortu zuten aurrea hartzea.

Urrezko Aizkolarien bigarren jardunaldia asteburu honetan jokatuko da. Otaegik eta Otañok Rekondo eta Erasunen aurka jo-

katuko dute igandean, hilaren 6an, Elorrioko Gazeta auzoan. Herri kirol jaialdia 12:30ean hasiko da. Zizurkildarrak eta ibartarrak berriro garaipena lortzen baldin badute, finalerdietan izateko txartela seguru izango dute, B multzoko lehenengoak izango baitira. Jon Rekondo leitzarrentzat, aldiz, txapelketako lehen lehia izango da etzikoa.

Asteasun, lehia ikusgarria

Donato Larretxearen sasoia kezka iturri zen proba hasieran, baina Berako aizkolaria lehen kolpetik argi erakutsi zuen sendo zegoela, bizkarrean hain ohikoak dituen minak gaindituta. Hain zuzen ere, beteranoak izan ziren aurrea hartu zutenak Asteasun. 45 ontzako enborra 34 kolpetan moztu zuten, eta gazteek 38 aizkorakada behar izan zituzten. Le-

hen proban, beraz, lau segundoko aldea lortu zuten Larretxeak eta Olasagastik.

Kolpekakoaren ondoren, 45 ontzako bi enbor zeinek azkarrago erdibitu neurtu behar zen. Beteranoek aldea handitzea lortu zuten, Otañok eta Otaegik hiru segundoko gehiago behar izan baitzituzten azkartasun proba hau amaitzeko. Zutikakoan, Larretxe eta Olasagastik zazpi segundoko gehiago lortu zituzten, euren aldea 14 segundora eramanaz.

Laugarren probara iritsi arte, beteranoak ziren jaun eta jabe, baina 60 ontzako enborren gainean, gazteen indarra eta hauspoa agerian gelditu zen. Ibartarrak eta zizurkildarrak proba irabaztearekin batera, aldea murriztea lortu zuten. Aurrea hartuko zutela zirudien hurrengo ariketan, baina Olasagasti eta La-



Otaño eta Otaegi, Urrezko Aizkolarien Iazko edizioan. IBONERRAZU

urretxea ez zeuden etsitzeko prest, eta bosgarren proban, 34 segundoko sartu zizkien gazteei. Zutikako enborra berriro gazteen bidean trabaturik gelditu zen, etzandako beste batekin batera.

Lehen puntua noren aldera joango zen azken probak erabaki behar zuen. Iraupen proba izaki, zutikako enborrik gabea gainera, gazteek aurkako aldeari buelta emateko aukera zuten. Egin beharreko lana: bi 45 ontzako, bi

kana erdiko eta bi 60 ontzako moztea.

Minutu erditik gorako aldeak ez zuten asko irau, gazteek hortzak estutu eta erakustaldia eskaini baitzuten. Azken proba amaitzeko bederatzita minutu eta zortzi segundoko behar izan zituzten, beteranoek baino ia hiru minutu gutxiago. Lan guztiak batuta, Otaegik eta Otañok 18:13ko denbora pilatu zuten, eta Olasagasti eta Larretxeak 20:24koa.

Intxurre Pilota Eskolakoek urtearen balantzea egin dute

Esker oneko hitzak izan dituzte pilota eskolako arduradunek, ekimena aurrera ateratzen lagundu dutenentzat

Erredakzioa

Intxurre Pilota Eskolak 2012. urteko balantzea egin du, horretarako, taldeko pilotari guztiak elkarrekin eta argazkia atera dute, urte berri ona opatzeko. Ekitaldian meriendatxo ere egin zuten, ondoren, eskertzak etorri ziren: «Ekimen hau bideratzen lagundu duten Alegia, Altzo eta Ikaztegi-tako udalei eskerrak eman nahi dizkiegu, euren laguntza gabe ezi-

nezkoa izango baitzen aurrera egitea». Kutxa eta pilota eskolako gurasoak ere gogoan izan zituzten. Azken hauen inguruan, esku bat botatzeko beti prest daudela azaldu zuten Intxurretik.

Pilota eskolan hamaika neska dabilta, infantil, kadete eta jubenilak kontuan hartuta. Mutilak 28 dira, maila guztietakoak. Hauek osatzen dute pilotari taldea, eta euren urte osoko lanak utzi du emaitza esanguratsurik. Norbanakoak bereizi gabe, pilotari guztien lana nabarmendu nahi izan dute Intxurreko arduradunek: «Badira talde honetan pilota joko bikaina lor dezaketanak; zenbaiten izena pilotazale askoren ahotan dabil dagoeneko, eta ziur gaude beste batzuk zeresana

emango dutela etorkizunean. Bestalde, Elkartearrentzat garrantzitsua izan da, pilotari nagusiek iaz lortutako Pilota Elkartearen Arteko Txapelketetan lehen mailan jokatzeako eskubideari eutsi ahal izatea, Zazpi Iturri eta Urretxuko pilotari batzuen laguntzarekin». Zentzu honetan, inguruko pilota elkarteekin izan duten harremana nabarmendu nahi izan dute: «Zazpi Iturri, Urretxu eta Aurrera Saiazekin egindako elkarlana, eta prestakuntza saioak antolatzeko nahiz hainbat lehiaketetan parte hartzen egindakoa aipagarria da. Eskerrik asko, beraz, guztiei, eta urte berri on! Ea datorrena doana bezain emankorra izaten den, guxtienez».



Hamaika neska eta 28 mutilak osatzen dute Intxurreko pilotari taldea. HITZA

Txapeldunen aurka jokatuko dute gaur Xalak eta Barriolak

Oinatz Bengoetxeak, Beroizen laguntzarekin, etzi jokatuko du Eibarren, Martinez Irujo-Zabalaren aurka

A. Imaz Leitza

Binakako Pilota Txapelketaren hirugarren jardunaldia hasiko da gaur. Abel Barriolak Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatuko du Xala lagun duela, Titin III.a eta Merino II.aren aurka. Partida 22:00etan hasiko da eta ETB 1k zuzenean eskainiko du. Xala-Barriolak orain arte jokatutuzten bi partidak irabazi dituzte, eta sailkapenean bigarren postuan aurkitzen dira. Azken partida Tolosan jokatuko zuten iragan ostira-lean, Gonzalez-Zubieta bikotearen aurka. 22-17ko emaitzarekin amaitu zen partida lehiatu eta luzea. Gaur, Donostian, txapeldunen aurka ariko da leitzarra, binakako azken txapelketa, Titin III.ak eta Merino II.ak irabazi baitzuten. Errioxarrak aurten ez dabilta fin, eta jokatuko dituzten bi partidak galdu egin dituzte. Sailkapen nagusian azken aurreneko postuan daude.

Lehenengo mailako txapelketan parte hartzen ari den bigarren leitzarra Oinatz Bengoetxea da. Bikotea Beroizekin osatzen du, eta jokatutako bi partidak irabazi egin dituzte. Igandean, hilaren 6an, Juan Martinez Irujo eta Zabalaren aurka ariko dira Eibarren, 17:00etatik aurrera. Partida ETB1k eskainiko du zuzenean. Martinez Irujo-Zabala bikoteak ez du partidarik galdu txapelketan, eta sailkapenean lehen postuan aurkitzen dira, egindako eta galdutako tantoak kontuan hartuta.

Bengoetxea VI-Beroizek txapelketako azken partida 22-17ko emaitzarekin irabazi zuten, iragan larunbatean, Olaizola II-Zabalaren aurka.

↓ Zuzenketa

■ **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza** egunkariaren atzoko zenbakian, Ibarako urte zaharreko krosa Sendi Ekintza elkarteak antolatzen zuela jarri genuen, baina, herritar talde batek antolatzen zuela, udalaren eta Hauspoaren babesarekin, eta herriko merkatari zein tabernarien laguntzarekin.

N-1 errepidearen Alegiako irteeraren ondoan zabaldu dute Route 33. Kalitatezko produktuak izateaz gain, motor munduarekin lotura duen espazioak ogiaren historia erakusten du Euskal Herriaren ikuspuntutik.

Ogiaren Euskal Herriko historia

Imanol Garcia Landa Alegia

Eguneroko jakia da ogia mahai guztietan. Are gehiago, ogiarekin eta urarekin bizitzerik badela nabarmendu du Gorka Garmendiak Route 33 espazioaren arduradunak. Orain gutxi ireki dute Alegiako Bazurka industri-gunean, Ogi Berri enpresak bultzatuta, eta aipagarrietakoa da ogiari buruzko museoa dutela espazioaren gainaldean. Horrez gain, gourmet okindegia, kalitatezko elikagaiak, eta taberna-kafetegia dituzte, haurrentzako jolas-parke txiki batekin.

Museoaren sarreran, elikagaien piramide bat dute, eta oinarrian zerealak daudela nabarmendu du Garmendiak: «Zerealekin eta urarekin bakarrik bizitzerik badago, eta ez diogu garrantzirik ematen. Txuleta edo babarrunak ondo prestatuta egon daitezten eskatzen dugu, baina ogiari ez diogu kasu handirik egiten, eta elikaduraren oinarria da. Zer jaten dugun begiratu behar dugu».

Museoan orain 7.000 urtetik hasi eta gaur egunerainoko historia erakusten da, zerealak eta ogia ardatz hartuta. Bidaia horretan laguntzeko panel erraldoi batez gain, hainbat objektu interesgarri daude. Batetik, orain lau mila urteko errota neolitikoa. Bestetik, baskoiek Iruñean sortu zituzten txanponak, orain 2.200 urtekoak eta *as* izenez ezagutuak. Garai haietan bi *as* behar izaten ziren ogia erosteko. Panel batean okinek kontaktzeko erabili dituzten ikurrak ikusi daitezke, eta lauhun urte dituen garia biltzeko kutxa bat ere badago. Industrializazioaren eredu, orain 100 urteko Ford Touring auto bat dago, eskualdean ibili zen lehenengoetakoa.

Ogi Berrin historia

Aralar erdigune gisa hartuta egi-ten da historia bidaia museoan, mendilerroaren magalean bukatuz, Amezketan, bertan sortu baitzen Ogi Berri enpresa. Altuna familiak sortu zuen eta egun familiak berak gidatzen du. Museoan Altunatarrei buruzko gune bat dago eta bertan ikusten dira, besteak beste, ogia banatzeko erabili zituzten lehen ibilgailuak: Tolosa ibili zen aurreneko trizikloa, Amezketan aurreneko erabili zen Orbea bizikleta eta 40ko hamarkadan erabilitako motoa.

Ogi Berri erreferentzia da Euskal Herri mailan, eta hainbat lan-tegi, denda eta frankizia dituzte.



Ezkerrean, ogiari buruzko historia erakusten duen panelaren zati bat. Eskuinean, historiaurreko errota. I.G.L.



Ezkerreko irudian, hainbat ogi mota dituen saskia, museoan. Eskuinean, gourmet okindegia eta taberna-kafetegia. I.G.L.



Altuna familiari buruzko panela eta hasierako garaietan ogia banatzeko erabili zituzten ibilgailuak. I.G.L.

Ogiaren museoaz gain, Ogi Berri besta hainbat ekimen babesten dituela nabarmendu du Garmendiak: «Euskal kirola, Korrika, Nafarroa Oinez, gobernuz kanpoko hainbat elkarte... Bere ogia erosten denean, ordainduta diruaren zati bat bertako kultura babestera bideratzen dela jakitea garrantzitsua da».

Ogiari buruzko beste museo

bat ezagutzen du Garmendiak, Valladoliden (Espainia) dagoena. «Bertako diputazioarena da, eta ez du bisita gidaturik eskaintzen. Ogiaren historiari buruz da, eta mundu osoko informazioa du, globala. Gure museoan bertako historia erakusten dugu, horretara nahiko datu baditugulako», nabarmendu du Garmendiak «Aranzadiri esker datu asko ditu-

gueta materialak ere biltzea lortu dugu. Nik uste dut euskaldunon historia zerealen bitartez modu polit batean jasotzeko aukera dela».

N-1 errepidearen Alegiako irteeraren ondoan dago Route 33. Hain justu, Route izenez ezagutzen diren lekuak ezaugarri jakin batzuk dituzte: «Kalitatezko jakiak eta prezio onean jan daiteke-

en lekuak». Motor munduarekin lotura duten lekuak dira, eta Alegiakoan 33 Motor Kluba sortu dute. «Kluba oso zabala da, motorrekin zerikusia duen edonorentzat da: motoak, auto zaharrak, autokarabanak,...», azaldu du Garmendiak.

Bertako produktuak eta kalitatea bultzatzea da proiektu berri horren helburua. «Museoa ideia horretatik abiatuta egin da, zein garen eta nondik gatozen ikusteko. Bestalde, kalitatea ez dela existentzia bat, baizik gure kultura hori dela», azaldu du Garmendiak.

Arrakasta itzela izaten ari da aurreneko egunetan ogiaren museo eta dagoeneko hainbat eskari jaso dituzte bisita gidatuak egin eta proiektzioak ikusteko, besteak beste, ikastetxeetatik. «Euskal Herriko zerealen historiaren berri ematen da proiektzioan», dio Garmendiak. «Zerealak nola erein, errotatik nola pasa, eta nola merkaturatzen diren azaltzen da». Bisita gidatuak eta proiektzioentzako izena emateko Route 33-rekin harremanetan jarri behar da, 943 69 86 03 telefono zenbakian.



Bidegoiango herritarrek elkarretaratzea egin zuten, Urtezahar egunean. HITZA



Manifestazio isila egin zuten, Aiztondo bailaran. HITZA



Urteko azken egunean elkartu ziren, Amezketan. HITZA

Bilboko manifestaziora joateko autobusak bete nahi dituzte

Tolosaldeko Herrira ekimenak hilaren 12an Bilbon egingo den manifestaziora joan nahi dutenentzat autobusak jarri ditu

Urte amaierako mobilizazioak, oro har jendetsuak izan dira eskualdeetan

Eneritz Maiz

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herritarrek abenduko azken ostira-lean eta Urtezahar egunean euskal preso eta iheslarien egoera salatu zuten. Urtarrilaren 12an Bilbon «hitzordu historikoa» dutela aldarrikatu zuten.

Presoen eskubideen alde eta bake eta konponbidearen aldeko

olatu erraldoi bat sortzeko asmoa iragarri zuten Herrira ekimene-lik, Bilboko kaleetan jendetza bil-*duz. Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean, 17:30ean, La Casillatik abiatuko den manifesta- ziora joateko deialdiak luzatu di-*tuzte* eskualdeetako herri asko-*tan.*

«Presondegietan ematen den

egoera ez gizatiar eta krudelak berehalako bukaera eskatzen du» aldarrikatu dute. Eta euskal pre-*so eta iheslarien «auzia gorritz az-
pimarratzea» ezinbestekoa dela
nabarmendu dute.*

Horretarako, autobusak anto-*latu dituzte* herrietan: Alegian, Bidegoianen, Tolosan, Altzon, Anoetan, Ibarren, Villabonan, Zi-*zurkilen...* Tolosaldeko Herrirak ohiko lekuetan jarri dituztela ize-*na emateko* zerrendak esan du.

Baina argi utzi nahi izan dute: «Igerian, hegan, oinez, autobu-*sez, trenez, metroz, tranbian...* Bakoitzari egokien eta eroso-*en egiten* zaion moduan, baina ber-*tan egonez; kaleak betez, kartze-
lak hustuz», adierazi dute.*

Bidegoianen antolatut duten

autobusean joan nahi duenak gaur du izena emateko azken egu-*na. Dendale eta Kontxeju taber-
netan daude* zerrendak, eta auto-*busaren kostua 10 euro inguruko
izango da. Autobusa, 14:30ean Bi-
daniko frontoitik abiatuko da. Her-
rritar guztiak animatu nahi di-
tuzte izena ematera.*

Amezketan, Anoetan edota Orendainen argazkiak atera di-*tuzte* herritarrei hilaren 12an Bil-*bora joateko gonbidapenak* egi-*nez. Era berean, era batera edo
bestera, eskualdeko herritar asko
mobilizatu da bi egunetan. Elka-
rretaratze ugari izan dira, eta ur-
teroko ohitura jarraituz manifesta-
tazioak ere egin dira. Aiztondo
bailarako manifestazio isila jen-
detsua izan da, baita Alegian egi-
nikoa ere.*

Leitzan ere manifestazioa egin zuten Urtezahar egunean, eta he-*rriko kaleak zeharkatu zituzten
aldarrikapen oihuekin. Areson,
aldiz, ordubete beranduago elka-
rretaratzea egin zuten.*

◉ tolosaldean@hitza.info

↓ Mobilizazioak

AZKEN OSTIRALA

- **Anoeta.** 38 pertsona.
- **Berrobi.** 12 pertsona.
- **Berastegi.** 31 pertsona.
- **Gatzelu.** 14 pertsona.
- **Ibarra.** 60 pertsona.
- **Ikaztegieta.** 20 pertsona.
- **Irura.** 25 pertsona.
- **Leaburu.** 8 pertsona.
- **Lizartza.** 43 pertsona.
- **Tolosa.** 80 pertsona.
- **Zizurkili.** 46 pertsona.

URTEZAHAR EGUNA

- **Aiztondo bailarako manifes-
tazioan.** 350 pertsona.
- **Altzo.** 54 pertsona.
- **Alegia.** 150 pertsona.
- **Amezketa.** 50 pertsona.
- **Anoeta.** 104 pertsona.
- **Berastegi.** 30 pertsona.
- **Bidegoian.** 20 pertsona.
- **Ibarra.** 85 pertsona.
- **Orendain.** 20 pertsona.



arregi

30.ana Kalea 8 • 20400 TOLOSA

Tel. 943 67 11 42

www.arregiortas.com

Bisita gaitzazu

Poltsiko Antzerki Lehiaketa 'Express'-a izango da

Asvinenearen web orrian zintzilikatu dute inskripzio orria; izena martxoaren 18rako eman behar da

Asier Imaz Aduna

Asvineneako kideak VII. Poltsiko Antzerki Lehiaketa antolatzen hasi dira, eta lehenik eta behin, izena emateko epea zabaldu dute. Horretarako finkatu duten azken eguna martxoaren 18a izango da. Izena ematerakoan, hainbat baldintza bete beharko dira: Testuaren kopia edo obraren sinopsia;

piezaren titulua eta egilea, eta parte hartzaileen izen artistikoa; guztien datu pertsonalak; harremanetan jartzeko telefono zenbaki bat eta piezaren behar teknikoak.

Baldintza guzti hauek egoki betetzen laguntzeko, Asvineneako kideek parte hartze orria prestatu dute. Izena emateko orri hori bete behar da, eta bera eskuratzeko, www.asvinenea.com helbidean sartzea nahikoa izango da. Behin fitxa bete ondoren, poltsiko2013@gmail.com helbidera bidali behar da. Inskripzioa 15 euro ordaindu behar da, obra bakoitzeko.

Asvineneatik azaldu dutenez,

aurtengo lehiaketa berrikuntza berezi batekin dator, hau da, *Express* hitzarekin: «Lehiaketa Express bat izango da aurtengoa, Poltsiko Express. Hiru kanporaketa jokatuko dira, eta ondoren finala. Lehen kanporaketa maiatzaren 3an izango da, eta finala 24an».

Parte hartzaileek pieza motzak egin beharko dituzte, iraupena 8 minutuz gorakoa eta 15 minutuz beherakoa izango delarik. Edozeinek hartu dezake parte, profesional zein amateurrek. Irabazlearentzat 600 euroko saria dago gordeta, eta epaimahai profesional batek aukeratu du norentzat izango den. Bestalde, eta ur-

teroko moduan, publikoak aukeratzeko duen pieza onenak 300 euroko saria irabaziko du.

Helburuak

Asvineneako VII. Poltsiko Antzerki Lehiaketa Express antolatzeke, talde berezia sortu dutela iragarri dute Adunako arte eszenikoen laborategitik. Antolakuntza izena eman diote talde honi, eta hainbat helburu eta oinarri zehaztu dituzte.

Aurtengo poltsiko lehiaketarekin formatu txikiko ikuskizunaren sustapena eta zabaltzea bultzatu nahi dute; teknika eszenikoen ikerketa ere burutu nahi dute; balore berrien formakuntza landu,

eta kultur trukeko espazioak sortu eta kudeatzeaz gain, beste elkarteekin elkarlanean aritzea ere gustatuko litzaiekeela aipatu dute.

Hori guztia praktikan jartzeko aukera maiatzaren 3an izango dute, lehiaketaren hasierarekin batera.

Asvineneatik herritar guztiak gonbidatu dituzte lehiaketan parte hartzera, obrak antzetzuz ez bada ikusle bezala. Edozein zantalza argitzeko, berri, poltsiko2013@gmail.com helbidera idaztea eskatu dute, edo bestela, 665 73 80 81 telefono zenbakira deitzea nahikoa izango dela argitu dute.



Lakuntza Gurrutxaga sendiari egokitu zaio ikaztegietakoko saskia. HITZA

Eguberrietako saskiak banatu dituzte eskualdean

Amezketan, Berastegin, Ikaztegieta eta Leaburu-Txaraman saski ederrak zozketatu dituzte

I. Terradillos

Hainbat herritan saskiak zozketatu ohi dituzte Eguberrietan. Berastegin, esaterako, hiru saskien irabazleak 9.735, 8.306 eta 5.985

zenbakiak izan dira. Amezketan ere, guraso elkarrekin egin ohi du zozketa Gabonetan. 694, 550 eta 807 zenbakidunak izan dira irabazleak. Ikaztegietakoko Udalak, estreinako aldiz, herritarren artean saski bat zozketatu du. Herriarren artean zenbakiak banatu zituzten, eta 169 zenbakiak izan da sarritua. Lakuntza Gurrutxaga sendia izan da zorteduna. Leaburu-Txaraman, bestalde, futbol taldeak eginiko zozketaren zenbaki sarritua 118 izan da.

Bidegoiango Correos irekitzea eskatzeko sinadura bilketa egingo dute

Bidaniko pilotalekuan jarriko dute mahaia, bihar, 10:00etatik aurrera; herritar guztiak deitu dituzte sinatzera

I. Terradillos Bidegoian

Correosek Bidegoianen zuen bulego zerbitzua itxi egin du. Udalak adierazi duenez, «ahalegin guztiak» egin ditu zerbitzua irekita mantentzeko, baina ez dute lortu. Beraz, aurrerantzean, postariak gutunak buzoietan banatzen jarraituko du, baina, gutun zertifikatuak, paketeak jaso eta beste antzeko zerbitzuen kasuan, postariak etxera hurbiltzeko saiakerak egingo du, baina etxean inor ez legokeen kasuetan, Azpeitiko Correos bulegora joan beharko luke erabiltzaileek jasotzera.

Bada, herriko bulegoa berriro ireki dadila eskatzeko, bihar, 19:00etatik aurrera sinadura bilketa egingo du Udalak, Bidaniko frontoian.

Musika Banda eta Txistulari Bandaren kontzertua, etzi

Musika Eskolan izango da urteroko hitzordua, 12:30ean; Letamendia eta Arostegi izango dira bandetako zuzendariak

I. Terradillos Tolosa

Eguberrietako giroa alaitzeko zuzeneko musika emanaldiak ohi-koak izaten dira gurean. Eguberri egunean, urtezahar egunean, eta baita, errege egunean ere. Azken honen harira, etzi, igandean, Tolosako Musika Bandak eta Txis-

tulari Bandak urteroko kontzertua eskainiko dute, Musika Eskolako (Pablo Gorosabel kalean) kontzertu aretoan, 12:30ean hasita.

Bi zati izango ditu emanaldiak. Lehenengoan, Txistulari Banda ariko da, Iñaki Letamendiaren zuzendaritzapean. Hauek bukaturik ostean, Tolosako Musika Bandak Strauss-en baltsak, polkak, mazurkak eta abar... joko ditu. Enrike Arostegi izango da Musika Bandaren zuzendaria. Aukera polita izango da, beraz, Tolosan, errege egunean goiz atsegina igarotzeko.



Tolosako Musika Bandaren kideak. HITZA

2013ko egutegia

Zatoz HITZAra, 2013ko mahai egutegiaren bila!

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

ko egutegia 2013

Badatoz Errege Magoak ilusioa banatzera

Bihar arratsaldean iritsiko dira Tolosaldera eta Leitzaldera hiru Errege Magoak, opariak etxetan uztera

Irigo Terradillos

Azken prestaketetan dabilta egunotan Errege Magoak. Lanpetuta ibili dira azken aste hauetan bakoitzari dagokion eta merezi duen oparia egiten, eta banatzeko unea iritsi da. Bihar izango da horretarako eguna. Euskal Herriko etxe guztietan sartu eta ilusioa utziko dute etxeko zapatilen alda-



Tolosan Zerkausion elkartuko dira Errege Magoak gaztetxoekin. i.r.

menean. Ordainetan, esker moduan, mokadutxo ere eskainiko diete etxe askotan.

Urduritasunez bizi ohi den eguna izaten da biharkoa. Batez ere, gaztetxoentzat. Hauek, goizean goizetik, era berezian igarotzen dute eguna. Arratsalde partean Errege Magoak ikusi, eta euren bi hitz egiteko modua izaten dute. Urtean zehar ondo portatu diren, eta opari moduan nahi luketena kontatzen diete. Gauean opariak utziko dituzte Erregeek, beraz, hurrengo egunera arte itxaron behar dute eskatutakoa jaso duten jakiteko, ohetik jaiki, eta zapatatxoaren aldamean dauden kaxak zabaltzean.

↓ Errege Magoen desfileak (Urtarrilak 5, bihar)

ALEGIA

■ **19:00etan.** Errege Magoak Orendaingo bidetik jaitsiko dira. Larraitz auzoa zeharkatu ondoren, San Joan kalea hartu eta herrigunea zeharkatuko dute. Ibilbidea plazan bukatuko dute eta gero udaletxeko balkoitik hitz egingo diete Erregeek.

AMEZKETA

■ **18:00etan.** Mendiko aldetik jaisten dira Errege Magoak eta herria zeharkatu ondoren, 18:45ak aldera, frontoira iritsiko dira. Bertan txokolata eta gozokiak banatuko dizkiete haurrei.

ANOETA

■ **18:00etan.** Basagain menditik aterako da Erregeen kabalgata. Erregeak oinez iritsiko dira herriko plazara, Anoetako txistulariek lagunduta. Bertan gozokiak banatuko dituzte.

ARESO

■ **17:30ean.** Errege Magoak

etxeko etxe ibiliko dira eta haurrei opariak banatuko dizkiete.

ASTEASU

■ **20:00etan.** Elizmenditik Erregeak herrira jaisten hasiko dira Olentzerorekin batera. Udaletxeko arkupeetara 20:30ak aldera iritsiko dira. Bertan jaiotza biziduna izango da eta eskaintza egingo dute. Bertan, Asteasuko Abesbatzaren eta herriko dantzari txikien saioak izango dira. Ondoren, aurrez gutuna bidalitako haurrei opariak banatuko dizkiete Errege Magoak.

BERASTEGI

■ **19:00etan.** Errege Magoak herriko plazara iritsiko dira Urdinarrain mendiko Etxoin-berri baserritik. Plazan, Olentzero eta jaiotza biziduna egongo dira, eta Erregeek eskaintzak egingo dituzte bertan. Berastegiko haurrek ere berdin egingo dute, talo, gaztaina, barazki eta abarrek. Ondoren Baltasar, Meltxor eta Gasparrek opariak emango dizkiete umeei.

BERROBI

■ **16:00etatik 19:00etara.** Urrutin oparien bilketa egingo dute.

■ **19:00etan.** Larte eta Seskea baserrietatik jaitsiko dira Errege Magoak eta herrian zehar ibilbidea eginez plazara 19:15ak aldera iritsiko dira, haurrei opariak banatzera. Desfileak irauten duen bitartean, arkume baten zozketarako txartelak salduko dira.

BIDEGOIAN

■ **19:00etan.** Errege Magoak Goiatz aldetik Bidaniko frontoira iritsiko dira. Bertan jaiotza giroa egongo da, hainbat animaliarekin, eta gaztaina erreak eta taloa dastatzeko aukera izango da.

IRURA

■ **17:00etan.** San Migel plazan txokolata beroa banatuko dute bizkotxoekin.

■ **18:00etan.** Kalez kale, Errege Magoen etorrera ospatuko dute, ondoren herriko plazan

hauek opari banaketa egingo dute.

LEITZA

■ **18:30ean.** Errege Magoak herriko Belenera joango dira. Bertan, Jaiki abesbatzak saioa eskainiko du. Zaldietara igo ondoren, Erregeak herriko plazara joango dira, eta bertan, gerturatu diren haurrei gozokiak banatuko dizkiete.

LIZARTZA

■ **19:30ean.** Zelain aldetik Erregeak eta euren laguntzaileak herrira jaisten hasiko dira. Abereen gainean jarririk, herria zeharkatu eta frontoira helduko dira. Bertan dantzari ongi etorria egin ondoren, haurrekin egongo dira, eta opariak banatuko dituzte.

OREXA

■ **15:30ean.** Errege Magoen desfilea abiatuko da. Etxeko etxe joango dira, gaztetxoekin egongo dira, eta gurdian dituzten opariak banatuko dituzte.

TOLOSA

■ **16:30ean.** Errege Magoak luireamendi egoitzara joango dira eta gaztetxoek, banan bana, beraiekin egoteko aukera izango dute.

■ **18:30ean.** Erregeak Izaskundik behera jaisten hasiko dira. Santa Klaratik Plaza Zaharrera joango dira, eta Tolosako kaleetan barrena ibili ondoren, Topic zentroaren parean atsedendia hartuko dute, eta eskaintza egingo dute, 19:00ak inguruan. Kabalgata Euskal Herria plazan jarraituko du. Handik Gorritira joango da, eta Korreo kalea zeharkatuko dira, eta haurrek Zerkausira iristeko, 20:00ak inguruan. Errege Magoak oholta gainera igoko dira, eta haurrek eurekin egoteko aukera izango dute.

VILLABONA

■ **19:00etan.** Amasatik behera Errege Magoen desfilea jaitsiko da. Plazan opariak eta gozokiak banatuko dituzte. Ondoren, herrian zehar itzuli bat emango dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



GABON PARKEAZ GOZATZEKO AZKEN EGUNA

Gaztetxoek gaur izango dute, Tolosa & Cok antolatutako Zerkasiko gabon parkeaz gozatzeko azken aukera; ordu bete gehiagoz izango da zabalik, 17:00etatik 21:00etara bitarte. 30 minutuko txartelak 2 euroko prezioa izango du, eta ordu beteko-

ak, berriz, 3 euro. Arratsalde osoa bertan igaro nahi dutenek, aldiz, 4 euro ordaindu beharko dute. Era berean, Zerkasitik gertu ere izango dute txikienek, gozatzeko aukera, Trianguloa plazako zaldiko-maldikoan. ASIER IMAZ

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Etxebeste, J. M. Gernikako Arbolaren lorategiak, 3. 943 65 10 40.

■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Egunekoa: Bronte, C. I.

Korreko kalea, 20. 943 67 60 13.
Gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen etairitzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

■ **Anoeta.** Gaur, 11:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 16:00etara xake partidak egingo dituzte Hozpel kaleko udal lokaletan.

■ **Anoeta.** Gaztetxean, gaur, The Joseans eta Foxy Leiners taldeen kontzertua, 23:00etan.

■ **Irura.** Gaur, 17:00etan, Gaztelekuko kide berriei ongi etorria eta merienda, eta 17:30ean, 11 kantatzeko ikusentzunezko kulturunean.

■ **Tolosa.** Gaur, Kiliklon Txokoa egongo da Zerkasian, 17:00etatik 21:00etara. 30 minutuko txartelak 2 euro balio du, ordu betekoak 3 euro eta arratsalde osoak 4 euro. Begirale guztiak euskaldunak dira.

■ **Villabona.** Gaur eta bihar, 2 eta 9 urte arteko haurrentzat gabon parkea; bihar 16:30etik 19:30era egongo da zabalik Berazana frontoian, eta etzi 10:00etatik 13:00etara, Malkar plazan edo frontoian, eguraldiaren arabera. Oria merkatari elkarteak antolatutako ekimena eta 2 euro balio du (familia ugaria direnek 1,40 euro ordaindu beharko dute).

■ **Irura.** Bihar, 17:00etan, txokolate jatea.

■ **Villabona.** Bihar, pintxo potea egingo dute 18:30etik aurrera, merkatariaren ekimenez.

■ **Tolosa.** Etzi, Tolosako Musika bandaren kontzertua izango da musika eskolako kontzertu aretoan 12:30ean hasiko da

ZINEMA

■ **Tolosa.** *La parte de los ángeles* filma eskainiko dute, Leidor aretoan; igandean 19:30ean eta 22:00etan izango da, eta astelehenean, ikuslearen egunean, 20:30ean.

Agurrak



Urte askoan!

Maria Dolores Iraola (Anoeta). Biharko partez zorianak eta muxu handi bat senarraren partetik.



Zorionak!

June. Bihar 2 urte. Zorionak familia guztiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● **agurrak**

Mauka Gaurko Eskaintza

Zaindu ezazu zeure burua garbiketa integralarekin

BUSTRAI NATUR DENDA
Moro 19. katea, 1
2005 Gendak 4892004
Tel. 94342 18 10
www.mauka.eu

Prezioa **59€**

berria

www.mauka.eu